


Euskal AEko industria-prezioek % 1,1 egin dute behera 2023ko maiatzean, aurreko hilabetearen aldean

2022ko maiatzarekin alderatuta, industria-prezioek % 5,7 egin dute behera

Euskal AEko industria-prezioek % 1,1 egin dute behera 2023ko maiatzean, aurreko hilaren aldean, Eustatek dituen datuen arabera. Maiatzeko urte arteko tasak azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du, eta % 5,7 egin du behera.

Analisi zehatzago batek erakusten du 2023ko maiatzean prezioetan aurreko hilaren aldean jaitsiera nabarmenenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea*, % 7,1eko jaitsierarekin prezioetan, eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, % 3,7ko jaitsierarekin. Prezioetan hilen arteko igoera nabarmenenak izan dituzten sektoreak, berriz, *Materialaren eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa* (% 5,1), *Ehungintza, larrugintza eta oinetakoak* (% 2,0) eta *Produktu farmazeutikoen fabrikazioa* (% 1,5).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraikiz, 2023ko apirilaren aldean, *Energiak* behera egin du prezioetan (% 5,8), eta *Kontsumo-ondasunek* % 0,5. Azken horien kasuan, jaitsiera *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioen % 2,0ko jaitsieraren ondoriozkoa izan da, *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak* gora egin baitu % 10,5. Bestalde, *Bitarteko ondasunen* prezioek % 0,4 egin dute gora, eta *Ekipo-ondasunenek*, % 0,1.

Urte arteko terminoetan, 2023ko maiatzetan, 2022ko maiatzaren aldean, prezioen hazkuntza handienak honako adar hauetan izan dira: *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 12,8), *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 12,3), *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 11,6) eta *Erauzketa-industriak* (% 11,2). Urte arteko terminoetan, jaitsiera handiena izan duten prezioak, berriz, honako adar hauetakoak izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 28,3 egin du behera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (-% 24,5) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (-% 3,9).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	129,1	-1,1	-5,7
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	123,6	-1,4	11,2
Manufaktura-industria	129,0	-0,7	-1,8
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	131,5	-1,6	11,6
Ehngintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	114,0	2,0	10,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	151,0	1,2	12,3
Kokeak eta petrolioaren fintzen	129,5	-7,1	-28,3
Industria kimikoa	150,9	-0,2	2,2
Botiken fabrikazioa	129,2	1,5	3,1
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	121,5	-0,7	12,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	140,6	0,8	-3,9
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	119,6	-1,8	-1,1
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	116,7	5,1	3,6
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,9	0,1	5,4
Garraioko materialen fabrikazioa	112,9	-0,2	7,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	120,5	-0,3	6,7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	129,8	-3,7	-24,5
Ura	132,3	0,0	8,7
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	128,7	-0,5	9,9
Kontsumoondasun iraunkorrak	117,5	10,5	6,3
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	130,5	-2,0	10,5
Ekipo-ondasunak	118,5	0,1	4,5
Bitarteko ondasunak	136,1	0,4	1,9
Energia	131,5	-5,8	-27,4

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Ekainaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da helmuga ekonomikoaren arabera ondastalde handi guztietan, *Energian* izan ezik, % 27,4ko jaitsiera izan baitu. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 9,9 egin dute gora, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 10,5 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak*, % 6,3. *Ekipo-ondasunen* prezioen igoera % 4,5ekoa izan da, eta *Bitarteko ondasunena*, % 1,9koa.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **95,08**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62